



BARREN
TOKIKOM

Gararock, rock gara



matricúlate en

aek

euskara praktikoa

Izena emateko epea: hilaren 26a arte



% 100 AFEKTIBOA

EUSKARA IKASTAROAK

CURSOS DE EUSKERA

Elgoibarko AEK euskaltegia
Gabriel Kurutzelaegi 10

(Toletxegain tren geltokiaren besteko aldean)

Tel.: 607 601 423

elgoibar@aek.eus

Baldintzak beteta, matrikula erdi-prezioan eta bekak udalari esker.



JUAN CARLOS

"Guro seme-alabengatik eta gourogatik"



VERONICA



NEREA

"3. perfila = EGA Lanagatik"



PAOLA

"Soy de Bolivia y quiero aprender euskera porque abre puertas en el mundo laboral"

eragileak hitz egiteko
Tertuliak

Tertuliak programa:

euskaraz berba egiteko beste aukera bat

Astean ordubete, dakizuna hobetzeko eta ez dakizuna ikasteko.
Eta gainera, doan! Euskaraz jarduteak ez daukalako preziorik.
Animatu eta eman izena urriaren 11 baino lehen!



Izena emateko eta informazio gehiagorako:

Elgoibarko Izarra (943 741 626) + AEK euskaltegia (607 601 423) + Udal Euskaltegia (943 742 731)

Eragileak:



Laguntzaileak:



MIKEL ARTOLA

Ekonomialaria



eredu berrien aukera eta eztanda izaten ari da. Ekoizlea eta erabiltzailea zuzenago lotzen ditu, informazio teknologien bitartez bitartekari ugari deuseztatuz. Bitartekariak zer eskainia badauka, bere lekua berregokitu dezakeela esan ohi da, eta erabiltzailearentzako kostearen murrizketaren abantaila deigarria den neurrian, dagoeneko enpleguarekiko kolpea gero eta begibistakoagoa da. Era berean, urteen poderioz eraikitako segurtasun eta berme sistemak egun

kerketa eta berrikuntza lanen emaitza nagusia produktuaren hobekuntza izaten da. Ezaugarrien indartzea, abiaduraren, zehaztasunaren edo baliolaniztasunaren zorroztea. Alor hortan dihardutenen altxorra, ordea, berrikuntza apurtzailea da, aurrekoarekiko jauzi kualitatiboa dakarrena, ohiko bide higatuen lekuan, espero gabeko ardatzak dakartzana.

Uber, Airbnb eta beste zenbaiten ekarpen potoloa, agian, negozio

Berrikuntza

batetik bestera suntsitzeko tentazioa hor dago, eraginkortasunak itsututa, mundu are basatiago baten murrizketan.

Baina jairo orduko eredu berriak ez ote daude gaitz zaharrez kutsatuak? AEBetako zenbait hiritan Uber kotxeak taxiak baino garestiagoak bilakatu dira, lortutako ia-monopoliozko egoerak "bultzatuta". Indiako hiri batean Uber zerbitzuaren erosotasunarekin eta prestutasunarekin gustura nengoen, baina hirugarren egunerako, bezero kopuruaren igoeraren eta kontzentrazioaren eraginez, zerbitzua bertan behera geratu eta gidari berdinek prezioa laukoiztu zuten. Eskariaren eta eskaintzaren arteko orekaren araua ekonomiaren zutabe garrantzitsuenetarikoa da, baina gizakion ohitura ase-zineetara makurtuta, berrikuntza apurtzaileenek ere lehengo lepotik burua.

"Baina jairo orduko eredu berriak ez ote daude gaitz zaharrez kutsatuak?"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzkadi Leuzak. Iratzen 2011

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villeda, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



VI. URTEURRENA

Leire Ugarteburu Gabilondo

***Urteko egun guztietan
bizi eta biziko
gure gogo-bihotzetan
maite hori!***

Etxekoak

2011 - 08 - 18



IV. URTEURRENA

Manolo Gil Zengotita

2013ko irailaren 17an hil zen, 85 urte zituela.

Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 16, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean,
eramango zaitugu betiko.***

Familiakoak



I. URTEURRENA

Jesus Ansola Arana

"Txanbolin"

2016ko irailaren 11n hil zen, 78 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 16, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikuzunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► DEMOKRAZIARI BAI

Urriaren 1ean, etorkizuneko estatus politikoa erreferendum bidez erabakitzera doaz Katalunian, gehiengo zabalaz. Ametsa betetzera doaz, eta haien ametsa gurea ere badenez, gure beroa agertu nahi diegu bihar, Gure Esku Dago mugimenduak deituta Bilbon egingo den manifestazioan [17:30ean abiatuko da manifestazioa La Casillatik, *Bozkatu erabakitzeko* eta *Demokrazia lelopean*]. Demokrazia eta herritarren duintasuna daude jokoan, eta ardurata gaude katalanen bozkatzeko nahiri eta erabakitzeko eskubideari Espainiako Estatutik jartzen ari zaizkion traba eta zigorrekin. Ezin dugu onartu

herritarren botoari balioa kentzea, erabakitzeko eskubidea delako gizarteak bateratzeko daukan elementurik demokratikoena. Galdetzea eta herritarren hitza aintzat hartzea da demokrazia egitea. Babes dezagun, beraz, Kataluniako herria.

Mendaroko Gure Esku Dago

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzendutako mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitz argitaratuko.

KILOMETROAK 2017 - OÑATI

IRAILAK 24, IGANDEA

- ➔ Autobusa antolatu dugu Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko.
- ➔ Irteera: 10:00 (Sigmako autobus-geltokia)
- ➔ Itzulera: 20:00
- ➔ Prezioa: 8 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 7 euro)
- ➔ Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da. Azken eguna: irailak 21

LEKAIXOKA!

KILOMETROAK 2017 OÑATI

Antolatzailea:



Babeslea:



32HD17 LED 32" ONWA TELEBISTA

Kolore txuria - 2HDMI - 1USB - A+



199€

FC200Z COMBI ONWA

Total NO frost
381 litro
Ateko kontrol elektronikoa
197 x 60 x 60 cm
A+
Altzairu herdoilgaitza



539€

MILAR BIRE

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

Dandako prezioak.
Produktuak agortu arte.

HB74AR521E SIEMENS LABEA

3 maila piroilico
Altzairu herdoilgaitza
8 funtzio
Perfect cooking 3D
A



499€

EH651FJB2E SIEMENS INDUZIO PLAKA

17 Potentzia
Control Touch Slider
Zona bakoitzeko programatzaila



499€

Bacalaos Alkorta enpresa izango da San Joan Baleaontziaren babesleatariko bat



Arg.: Oarsoaldeko Hitza

San Joan Baleontziaren babesle taldera batu da Elgoibarko Bacalaos Alkorta enpresa. XVI. mendean Kanadan urperatutako San Joan galeoiaren erreplika egiten dihardute Pasaiaiko Albaola elkartearen, eta trinketearen kabia da Elgoibarko enpresak babestuko duen ontziko pieza. Albaola Itsas Kultur Faktoriak proiektu kolektibo, ireki eta parte hartzaile gisa definitzen du San Joan Baleontzia eta erakunde publikoaren laguntzaz gain, pribatuaren beharra ere ezinbestekoa dela adierazi dute. Hala, erreplikaren zati bat edo pieza babesteko ekimena jarri zuten abian, galeoiaren erakuntza prozesuari laguntzeko. Hainbat enpresak pieza handiak babestu dituzte eta horietako bat izan da Elgoibarko Bacalaos Alkorta. 4.500 euroko ekarpena egin du enpresa elgoibartarrak.

Bacalaos Alkortaren itsas kulturarekiko lotura

Laguntza ekonomikoa eta babesa emateaz gain, Bacalaos Alkortaren itsas kulturarekiko lotura nabarmendu dute Albaola Itsas Kultur Faktoriako kideek. Euskaldunak XVI. mendean balea arrantzatzerara joateaz gain, bakailaoetara ere joaten zirelako Ipar Atlantikora, San Joan Baleontziaren moduko itsasontzietan. Kasu honetan, Bacalaos Alkorta enpresa bakailao gazitua, ez gazitua eta izoztuaren elaborazio eta banaketaren aitzindaria da.

XVI. mendean sortu zuten San Joan galeoia Pasaian, baleen ehizarako. Ternuara (Kanada) joan ohi ziren ugaztun horien bila 60 lagun. Bidaia horietako batean, hondoratu egin zen galeoia, Red Bay inguruan, 1565. urtean zehazki. 400 urte geroago, 1978an, baleontzia eta haren azpian geratu zen txalupa aurkitu zituen Parc arkeologo talde kanadarrak.

Elgoibartar bat ingurune horretan

Euskal baleazaleek Ternuan eta Labradorren laga zuten arrastoari segika joan zen espedizioan parte hartu zuen joan den ekainean Angel Ugarteburu elgoibartarrak. Besteak beste, San Joan galeoia aurkitu zuten inguruak ezagutu zituen Red Bayn; eta, gainera, 1978. urtean baleontzia aurkitu zuen Robert Grenier itsaspeko arkeologo quebecarraren azalpenak lekuan bertan jasotzeko zortea izan zuen. Angel Ugarteburuk www.barren.eus-eko Komunitatean duen blogean irakur ditzakezue egin zuen bidaiaren kontakizun eta bizipen guztiak, kapitulutan banatuta.

Cabarceno eta Santanderrera bidaia antolatu dute

Elgoibarko Zaharren Biltokiak Cabarceno eta Santanderra irteera antolatu du irailaren 28rako. Autobusa 8:00etan irtengo da Elgoibartik, eta Santanderrera joango dira. Hiria bisitatu ostean, Cabarcenon bazkalduko dute eta arratsaldean hango Parke Naturala bisitatzeko aukera izango dute. Interesatuak Zaharren Biltokian bertan eman beharko dute izena. Bidaiaren prezioa 35 eurokoa da bazkideentzat eta 40 eurokoa gainerakoentzat. Prezio horren barruan sartzen dira autobusa, bazkaria eta Cabarcenoko Parke Naturalerako sarrera.

Agertu da Sallobenteko jaietako errifaren zozketako irabazlea

Sallobenteko festetako errifaren zozketa abuztuaren 12an egin zuten, Loteria Nazionalaren zozketa-rekin. 33.527 izan zen zenbaki sarritua (Erreserba, 60.411). Txekorra edo 1.205 euro dirutan zen saria. German Telleria elgoibartarrari egokitu zitzaion zenbaki sariduna, eta dirua aukeratu zuen. Idurre Arrizabalaga eta Arantxa Bollar Sallobente elkartearen kideek eman zioten saria.



Zabalik dago 'Tertuliak' programan izena emateko epea



Dagoeneko zabalik dago Tertuliak programan izena emateko epea. Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udala, AEK euskaltea, eta Udal Euskaltea dira egitasmoaren eragileak, eta 2001. urtean abiatu zuten programa, euskaraz berba egin nahi, baina erraztasunik ez zeukatenei euskaraz jarduteko aukera eskaintzeko. Aurtengo jarduna urrian hasiko da, eta ekainera arte iraungo du. Lauzpabost laguneko taldeak osatu eta talde bakoitzean euskaraz ondo dakien lagun bat egongo da, taldea dinamizatzeko. Astean ordubeteko tertulia saioa egingo dute. Iaz 45 lagunek hartu zuten parte, hamar taldetan banatuta. Interesatuak urriaren 11 arte dute izena emateko epea, ondorengo telefonoetara deituta: 607 601 423 (AEK euskaltea), 943 74 27 31 (Udal Euskaltea) edo 943 74 16 26 (Elgoibarko Izarra).

Gazteak lan munduan barneratzeko Hazilan egitasmoa jarri du martxan Debegesak

Hazilan egitasmoaren laugarren edizioa abiatu du Debegesa garapen agentziak Debabarrenean, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Programa honek eskualdeko gazte kualifikatuak laneratzea du helburu. Hain zuzen ere, egitasmoa Debabarreneko 20 eta 44 urte bitarteko gazte langabeei zuzenduta dago, goi mailako heziketa zikloa edo unibertsitate ikasketak bukatuta dituztenei. Parte-hartzaileek prestakuntza pertsonalizatua jasoko dute. Lehen fasean euren gaitasunak hobetzeko trebakuntza jasoko dute, eta bigarren fasean enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute. Parte hartzeko interesa dutenak izena eman behar dute irailaren 30a baino lehen, debegesa.eus webgunearen bidez. Baldintzak betetzen dituzten hautagai guztien artean, Debegesak aukeraketa prozesu bat egingo du, curriculumak aztertuz eta elkarrizketak eginez. Debegesak saio informatiboa eskainiko du irailaren 28an, 15:00etan, Debegesaren egoitzan. Informazio gehiago 943 82 01 10 telefonoan.

Euskara ikastaroak Mendaron

Mendaron euskara ikastaroak emateko prest agertu da Mendaroko Udala, Elgoibarko AEK Euskaltegiarekin elkarlanean, gutxienez zortzi laguneko taldea osatuko balitz. Maila desberdinak eskainiko dira: Ezer ez dakitenentzat, erraztasuna hartu nahi dutenentzat edo tituluren bat lortu nahi dutenentzat. Beka sistema ere aplikatuko dute baldintzak betetzen dituzten artean. Baldintzak eta oinarriak www.mendaro.eus webgunean aurkitu daitezke.

Ate irekiak Mendaroko ludotekan

Mendaroko ludotekan izena emateko epea zabaldu dute, eta nahi duenak ludoteka ezagutzeko aukera izango du irailaren 27tik 29ra. Urriaren 4tik aurrera izena ematen dutenak soilik sartu ahal izango dira. Mendaroko ludotekak HH3, LH1, LH2 eta LH3ko umeei ematen die zerbitzua. Informazio gehiago 943 033 298 telefonoan.

Kilometroetara joateko autobusak antolatu dituzte Elgoibartik eta Mendarotik

Irailaren 24an ospatuko da Gipuzkoako Ikastolen Jaia Oñatin, eta hara joateko autobusak antolatu dituzte Elgoibartik eta Mendarotik. Mendaroko Udalak 5 euroan jarri ditu salgai autobuserako txartelak. Gaztelekuan edo Morrokillon erosi daitezke, irailaren 17a baino lehen. Autobusa 9:00etan irtengo da tren geltokitik, eta itzulera 20:00etan izango da. Elgoibartik, aldiz, Elgoibarko Izarran izango dute Kilometroetarako autobus txartelak erosteko aukera 8 euroan (Bazkideek 7 euro). Interesatuak irailaren 21era arte izango dute txartelak erosteko epea. Autobusa Sigmako zubitik irtengo da 10:00etan, eta 20:00etan itzuliko da bueltan Oñatitik. Elgoibarko Udalaren babesarekin antolatu du autobusa euskara elkarteak.

Aingeru Gallastegi, Ina Iriondo eta Josu Iriondo, Gararock jaialdiaren antolakuntza taldekoak, Garagartzako plazan.




Rockaren plaza bihurtuko da Garagartzan irailaren 23an

Iazko arrakastaren ostean, aurtten, berriz antolatu dute Mendaron Gararock musika jaialdia, irailaren 23rako. Musikaren astea izango da datorrena. Sinuösek Audience eta Athom Rhumba taldeak ekarriko ditu Elgoibarrera eguen eta barixakuan, Sotoko Hotsak jaialdiaren barruan, eta zapatuan, rock munduko zazpi taldek dantzan jarriko dute Mendaro. 17:00etan hasiko da jai-giroa Garagartzan, eta 18:00etan hasiko dute jaialdia, Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxea bikoteak.

- AINARA ARGOITIA -

Donostiako Trinitate plaza jazzarentzat izan dena bihurtuko da Garagartzako plaza rockarentzat bihar zortzi. Formato txikiagoan eta giro batuagoan, bistan da, baina rockaren plaza egin nahi dute Garagartzan irailaren 23an Gararock jaialdiaren antolatzaileek. Eta hantxe, musikazalez beteta irudikatzen

du ten plazan bertan, egin dugu hitzordua Aingeru Gallastegi, Josu Iriondo eta Ina Iriondorekin. "Ikaragarria izango da. Formato honetako jaialdi batentzako primerako lekua da hau", dio Iriondok. Lan handienak eginda dituzte, taldeak lotuta eta zabalkunde-lanak aurreratuta, eta gauza bakarra eskatzen dute orain, jaialdia biri-



bila izan dadin: eguraldiak laguntzea. "Ezagarri hauetako kontzerturik ez da sekula egin hemen, ez Elgoibarren eta ezta Mendaron ere. Eguraldiak laguntzen badu, izugarria izango da, benetan. Jendeak gozatu egingo du".

"Gogoratzen zara Garagauetaz? Hemen sortzen zen giroaz? Izugarria izaten zen. Plaza honek badauka zer bait berezia", bota du Inak. Bada denbora Garagartzan soinu-hotsak isildu zirela eta auzoa bera ere ez da lehen zena, baina Garagau haien oihartzuna bizi-bizi dago oraindik mendararren oroimenean. Hiru urtez jarraian antolatu zuen talde honek berak Garagaua: 2005, 2006 eta 2007. urteetan, uztailez eta gabez, eta orduko giroa biziberritu nahi dute. Garagaua jaialdiaren estreinako bi edizioak Garagartzan bertan egin zituzten, eta hirugarrena, Herriko Enparantzan. "Hirugarrena, baina, ezberdina izan zen. Eskenatoki handiagoan eta baldintza hobekoetan egin zen, baina xarma galdu zuen. Garagartzako plazak badu beste zer bait halako formatoetarako", gehitu du horren harira Josu Iriondok. Eta hain justu ere xarma hori da Gararocken iazko estreinako

edizioan berreskuratu nahi izan zutena. "Guk nahi duguna da kanpotik Mendarora etorri den jende guztiak ikustea hau zer zen lehen, eta batez ere umek ikustea zenbat gauza egin daitezkeen hemen", gehitu du horren harira Ina Iriondok.

Elgoibarko Sotoan Munlet talde mendaroarrak iazko udaberriaren eskaini zuen kontzertuaren bueltan piztu zitzaizaien ideia. Ordurako, Ina Iriondok esana zion Carlos Cebrian herrikide eta Munleteko taldekideari ondo legokeela disko berria (*Chupacabras*) herrian aurkeztea, eta Aingeru Gallastegi Sotokoa Mendaron egiteko aukera aztertzeke esanez joan zitzaionean, ez zuen zalantzarik egin. Huraxe izan zen estreinako Gararock jaialdi haren hazia, eta halaxe batu ziren lanera herriko hainbat musikazale eta lagun. Jaietatik kanpoko Mendaroko kultur eskaintza aberastu nahi zuten, eta herritarrei herrian bertan musika emanaldi bereziaz gozatzeko aukera eskaini. Atondu zuten lekua, lotu zituzten taldeak eta DJak (Bikustik, Creedence, Vulk eta Munlet bera eta Axen eta Arno disko jartzaileak), eta osatu zuten jaialdia.

"Emaizta ikusgarria izan zen. Jende asko batu zen hona, espero genuena baino gehiago eta oso gustura gelditu ginen", oroitu du Gallastegik.



EGITARAU OPAROA

Eta iazkoak hauspotuta antolatu dute aurtengoa. Puntako kartela osatu dute, eta bihar zortzirako antolatu duten jaialdiak

ondo irtengo balu, udaberriko Azpilgoetako auzoan beste zer bait antolatuko luketela iragarri dute. "Ondo irtengo da, ziur, horretarako osagai guztiak ditu-eta", dio Gallastegik. Rocka izango du oinarrian jaialdiak, baina talde bakoitzak bere ukitua emango dio. The Lookers talde ziburuarra jarri dute kartelburuan. Garage punk estiloko musika egiten dute, eta sona handia hartzen ari da taldea. Horren erakusgarri da The Flamin' Groovies talde ezagunaren kontzertuetan hasierako gonbidatu moduan ari direla jotzen. Hala egin zuten, esaterako, irailaren 7an Bilboko Kafe Antzokian eta baita biharamunean Madrilgo Sala Caracolen ere, eta bihar ere, haiek joko dute Donostiako Kutxa Music Festibalen, The Flamin' Grooviesen aurretik. Kartela, baina, beste sei taldek osatzen dute: Sonic Trash rock alternatiboko talde bilbotarrak (Euskal Herrian beharbada gehien entzun den rock mota egiten dute), Iruñeko Kabbalah hard-rock talde indartsuak, klasikoek bertsioak egitera ohituagoa dagoen Getxoko Las Morenas taldeak, The Screamin Targets rock and roll talde donostiarrak, Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxea bikote aski ezagunak eta Mendaroko Jo ta Ito! talde hasiberriak. [2016ko abenduaren 2ko alean argitaratu genuen Jo Ta Ito taldeari egindako elkarrizketa].

17:00etan hasiko da giroa Garagartzan. Haurrentzako tailerra antolatu dute, eskulanak egiteko, eta 18:00etan hasiko dute jaialdia Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxeak, Musika Eskolako terrazan. Ondoren, Morenas taldeak joko du, Garagartzako plazan, eta hortik goizaldeko 2:00ak aldera arte, musikak ez du etenik izango. Izan ere, espazio batean zein bestean ariko dira taldeak, elkarren segidan, etenak saihesteko. "Arratsalde-gaueko formatoa da gurea, familia osoarentzako prestatutakoa".

Zuzeneko musikaz gain, beste osagai batzuk ere izango ditu Gararockek. Photo-calla ere jarriko dute eta Food Truck furgoneta handia ere ekarriko dute aurten, Garagartzatik mugitu beharrik izan ez dezan jendeak, jana eta edana eskuratzeko. "Iaz ogitar-tekoak ekarri genituen, baina luzatu zitzaigun kontua eta aurten beste jira bat eman nahi izan diogu horri. Furgoneta berezia da datorrena. Ez da ohiko hanburgesak eta saltxitxa ogitarteko edo *hot dog*-ak saltzen dituen horietako saltxi-auto bat izango. Jateko berezia ekarriko dute. Ogia ere eurek egiten dute, eta 14:00etatik ogia eta jatekoa prestatzen ibiliko dira hemen. Oso artisauak dira", aurreratu du Josu Iriondok.

Ilusioz daude antolatzaileak eta igartzen zaie. "Badiotsugu. Denak ondo irtengo balu, eta zalantzarik ez daukagu hala izango dela, badaukagu beste sorpresa bat pentsatuta udaberriko".



.... **JON & KEU (18:00). TERRAZAN**

Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxea ezagunak dira Mendaron. Arima Beltza, Jon & Sugramas, Bikustik, Andrankan eta beste hainbat proiektutan aritutakoa da Jon, eta Etsaiak, Uek, eta Governos taldeetan edo bakarka ibilitakoa Keu.



.... **LAS MORENAS (19:00). GARAGARTZAKO PLAZAN**

Getxoztarrak dira. Dinamita pa los Pollos, Extremoduro, Cujo, Arana edo Cancer Moon-en aritutakoak dira. Orain, Las Morenas taldean batu dira, punk, new wave eta rock klasikoko kantu ezagunenen bertsioak egiteko.



.... **SCREAMIN TARGETS. (20:00). TERRAZAN**

Donostiarrak dira, eta rockabilly, rock&roll klasikoa, eta power pop egiten dute. Nuevo Catecismo Catolico taldeko partaideez osatutako taldea da, eta binilo bat eta single pare bat badituzte. Arturo Ibañez gitarristak (NCC), Arturo Zumalabe bateria jotzaileak (NCC), Beñat Bergara (Lili and the Tomboys) baxu-jotzaileak eta Gigi Peligro (Supertrooper) abeslariak osatzen dute.



.... **JO TA ITO (21:30). PLAZAN**

Herriko bi nerabek sortutako taldea da, eta punka egiten dute.



.... **KABBALAH (22:15). PLAZAN**

Iruñeko hirukotea da. Emakumezkoak dira hirurak. Las Culebras taldeko Marga Marilaria eta Carmen Kobrari, Alba gitara-jolea batu zitzaizen, eta stoner-doom-hard-rock musika egiten dute. Disko berriarekin datoz Mendarora.



.... **SONIC TRASH. (23:30). PLAZAN**

Bilboko talde beteranoa da. Ya te Digo izenarekin hasi zuten ibilbidea 90eko hamarkadaren erdian. Rock alternatiboaren buru izan ziren eta sonic trasha egiten jarraitzen dute. Bateria-jolea, Mariana Perez, Audience eta Capsularekin dabil jotzen, eta Lander Moya, baxu-jotzailea, Zodiacsen ibilitakoa da.



.... **THE LOOKERS. (1:00). PLAZA**

Garage-punk-rock estiluan izen handia hartzen ari da Ziburuko hirukote hau. Irungo Bloody Mary disketxearekin atera duten lehen diskoak kritika oso onak izan ditu rock zaleen artean.



Hamaika litera, literatur zale guztien elkargunea

Literaturarekiko zaletasunak batu zituen Jasone Osoro eta Unai Villena idazleak, eta ziklo berri bati ekiteko elkartu dira orain. Hamaika litera ekimen berriaren “xaxatzailleak” dira, 1998an Elgoibarko Izarraren ekimenez sortu zen Urruzuno literatur talde hartako kideak biak, eta Elgoibarren “literatura zaletasunarekiko garra piztuta mantentzera” dator haien proposamena. Udazkenerako, hiru literatur saio antolatu dituzte Euskal Herriko punta-puntako idazleekin, Danobatek emandako diru-laguntza baliatuz, baina nabarmendu dute Hamaika litera ekimena, “gutziz irekia” dela eta denborak eta batzen direnen indar eta gogoak zehaztuko duela zer izango den, baina nahi luketela, jakina, jarraipena izatea. Hasteke, Harkaitz Cano idazlea eta Arantxa Iturbe idazle eta irratilaria gonbidatu dituzte estreinako ekitaldirako. Asteazkenean izango da, 19:00etan, Musika Eskolako auditoriumean.

Urruzuno literatur taldeari egin nahi izan diote keinua ekimenari Hamaika litera izena emanda. 1998. urtean jaio zen Urruzuno taldea eta oparoa izan zen haren jarduna, harik eta 2005ean azkena eman zioten arte. *Hamaika litera* izeneko aldizkaria sortu zuten, *Hamaika kontu literetan* zuzeneko emankizuna taularatu zuten Toletxen, *Urruzunoren begi ezkutua* (gerora *Urruzunoren luma*) atala izan zuten BARRENen, eta urtean behin, literatur astea antolatu zuten Elgoibarren. “Literaturarekiko zaletasunagatik egin genuen, aritzeko gogoz eta beharrez, gerora ulertuz haren guztiaren benetako balioa: irakurtzea/idaztea gogoko genuenontzat babeslekua izan zen talde hura, bestela hain bakartia den jarduera sozializatzeko tokia”, jaso dute Hamaika litera ekimenaren bultzatzaileak. Dozena bat elgoibartarrek osatu zuten taldea: Jasone Osoro, Jon Eugi, Ion Garate, Iñigo Otaño, Mikel Artola, Joseba Esnaola, Amaia Urtzelai, Ainhoa Lendinez, Uxue



Alberdi, Maite Uriarte, Eguzkiñe Aranberri eta Unai Villena.

Moldean ezberdina, funtsean berdina

Moldean ezberdina izan arren, funtsean orduko helburu bera du Hamaika literak: literatur zaleen elkargune izatea. “Kultur eskaintza oparoa du Elgoibarrek, baina musika edo antzerkia moduko kultur adierazpenekin ez bezala, apenas antolatzen den espreski literaturarekin lotutako eki-

taldirik. Hutsune hori bete nahi dugu”, dio Osorok. Nabarmendu dute Elgoibarrek beti izan duela literatur tradizioa eta interesa, eta horren adierazletzat dituzte Elgoibarrek eman dituen idazle eta literaturzaleak. Eta hoiek eta herriko elkarrekin elkarlanean egin nahi dute bidea. Urtean literatura eta pentsamendurekin lotutako hitzaldi, errezitaldi, mahai-inguru edo solasaldiak antolatu nahi dituzte, eta sortzaileen euskarazko lanak eta hausnarketak hurbildu.

“Oso pozik gaude gure habitat naturaletik kanpoko publikoa erakarri dugulako”

▶ **AGER ISUNZA** AUDIENCE TALDEKO KIDEA

‘Sotoko Hotsak’ musika zikloa antolatu du Sinuösek datorren asterako, eta aurtengo edizioan bi kontzertuk osatuko dute egitaraua: Eguenean, Gernikako Audience taldeak eskainiko du kontzertua. Ez da kontzertu arrunta izango; saio berezia izango da. Izan ere, zesta puntari buruzko ‘Jai alai Blues’ dokumentalaren soinu banda eskainiko dute zuzenean. Irudiak eta musika uztartuko dituzte, eta publikoak zesta puntaren historian zehar bidaiatzeko aukera izango du. Herriko Antzokian izango da, 21:30etik aurrera. Ager Isunza Audience taldeko kideak eman dio BARRENI ikuskizunaren berri. Barixakuan, berriz, Bilboko Athom Rhumba taldeak kontzertua emango du, Kultur Etxeko sotoan, 23:00etan.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ ‘Jai Alai Blues’ dokumentalaren soinu banda eskainiko duzue zuzenean Herriko Antzokian. Zertan datza ikuskizuna?

Kontzertu berezia da. Dokumentala ikusi ahala, abestiak joko ditugu zuzenean. *Jai Alai Blues* dokumentaleko soinu bandaren abestiak joko ditugu bereziki, baina gure abestiak ere bai. Ikuslearentzat ekitaldi potentea izango da; istorioan barneratzeko erraza. Emanaldiak asko irabazten du irudiak eta zuzeneko musika uztartuz. Zesta puntari buruzko historia sakona kontatzen du dokumentalak. Denok ezagutzen dugu zesta puntaren historia apur bat gaintetik, baina lan honek kirol horren urrezko aroa eta gainbehera jasotzen ditu. Protagonista berezi batzuen birtatez kontatzen du kirol horren eboluzioa. Euskal Herrian sortu zen kirola, eta gero Madrilera eta Bartzelonara zabaldu zen. Horren ostean, enpresari dirudun batek Egiptora eraman zuen, handik Txinara, Filipinatarara gero, eta ondoren Kubara, Mexikora eta mundu zabalera. Guk bidai hori guztia jarraitzen dugu musikarekin zuzenean. Oso ikuskizun dinamikoa da.

♦ Zuek zein harreman daukazue zesta puntarekin?

Gernikarrak gara, eta Gernikan zesta

punta kirol oso potentea da. Nik neuk jokatu izan dut zesta puntara afizionatu mailan Gernikako Jai Alai taldean, eta Hannotet, 2016ra arte taldeko kide izan den beste batek ere, jokatu izan du. Berde Produkzioak taldeko batzuk ere zesta puntan jokaturakoak dira, eta hein batean, hortik ere ezagutzen dugu elkar.

♦ Nola sortu zitzaizuen proiektu honetan parte hartzeko aukera?

Ez da horrelako lan batean parte hartzen dugun lehenengo aldia. 2015eko Zinemaldian aurkeztu zuen Berde Produkzioak taldeak *Jai Alai Blues* dokumentala, baina aurrez ere ekoiztetxe berberarekin lan egindakoak gara, *Amerikanuak* proiektuan. Gernikako jendea dago ekoiztetxean, jende ezaguna, eta *Jai Alai Blues* dokumentalerako soinu banda egiteko eskatu ziguten. Gero, *Amerikanuak* lanarekin egin genuen bezala, zuzenera eraman dugu proiektua.

♦ Musika eta irudiak uztartzen dituzue zuzenean. Nola moldatzen zarete?

Jaleo handia da, egia esan. Sinkronizazio lan handia egin behar izaten da. Soinu banda grabatzea desberdina da. Lan hori estudioan egiten da, eta pixkanaka-pixkanaka lotzen da musika irudiekin. Baina hori bera zuzenean egitea ez



da hain erraza. *Amerikanuak* lanarekin asko ikasi genuen, eta horri esker teknikoki sortzen diren zailtasun asko gaintitu ditugu. Emaizta oso positiboa izan da.

♦ Elgoibarko kontzertua izango da birako azken emanaldia. Biraren zein balorazio egiten duzue?

Urte eta erdiko bira izan da, eta bai, Elgoibarko izango da azkena. Oso balorazio positiboa egiten dugu, bereziki, publiko zabal eta desberdinarengana iristea lortu dugulako. Audience bera baka-riki ikustera etortzea edo ikuskizun honetara etortzea ez da gauza bera. Oso pozik gaude bira honetan lortu dugulako gure habitat naturaletik kanpo dagoen publiko erakartzea, eta uste dut jende gehiena sentsazio positiboarekin irten dela emanaldietatik.

♦ Azken saioa izanik, zerbait berezia prestatu duzue ala ohiko emanaldia izango da?

Errepertorioa nahiko finkoa da, azken batean, bideoko irudiekin batera joan behar garelako, baina saiotik saiora aldaketa txiki batzuk sartzen ditugu, batez ere, bideoarekin ez doazen abestietan, hau da, gure errepertorio naturalean. Orain disko berria grabatuta daukagunez, Elgoibarko emanaldian disko berri horretako kantaren bat ere joko dugu.

♦ **2000. urtean sortu zenuten taldea Gernikan. Rock taldea zarete eta ingelesez abesten duzue bereziki. Zergatik?**

Askotan egin izan digute galdera hori, eta egia esan, ez da erraza galdera horri erantzutea. Gure eskaintzan gero eta euskara gehiago sartzen dugula egia da. Egia da baita ere ez gara euskaldunak bakarrik, euskalzaleak ere bagara, baina bai, ingelesez abesten dugu batez ere. Taldekideok izan ditugun musika erreferentzia gehienak ingelesezkoak izan dira eta rocka guk ulertzen dugun moduan hobeto uztartzen da ingelesarekin. Eta arrazoi estetikoak ere izan daiteke agian ingelesez abestearena. Disko berrian inoiz baino euskararen presentzia handiagoa dago.

Kontraesan edo inkoherentzia honetan, eroso sentiarazten gaituen formula era biltzen dugu azken batean, eta nik uste dut ez gara gai beste modu batean egiteko.

♦ **Aurrera begira, zein proiektu dituzue eskuartearen?**

Disko berria grabatu dugu, eta urrian kaleratuko dugu, *Isla* izenburupean. Kuban grabatu genuen Aste Santuan Kaki Arkarazorekin, eta Kubako hainbat musikariren kolaborazioa ere izan dugu. Behin diskoa kaleratzean, bira berria hasiko dugu, azaro inguruan. 2016an Mikel batera joleak eta Hannot gitarra-jole eta abeslariak taldea utzi zuten, eta aldaketa handia izan zen guretzat. Aurreikusita zegoen aldaketa, baina gogorra izan zen, izan ere, hasierako bost taldekideok hamabost urtez egon ginen elkarrekin. Haien ordez, Mariana Perez sartu da baterian, eta Ruben Garatea gitarra eta ahotsean. Jende gaztea da, eta nolabait esateko taldea berrasmatu egin behar izan dugu. Gaizka Isunzak, Andoni Lauzirikak nik neuk osatzen dugu taldea.

“Dokumentaleko irudiak eta zuzeneko musika uztartuz asko irabazten du emanaldiak”



Sinuöse: Musika herrira ekartzeko lanean

Herritarrek zinemara joateko ohitura duten moduan, hilean behin sotoko kontzertuetara joateko ohitura hartzea gustatuko litzaioke Sinuöseri. Kultur taldea da Sinuöse, eta musika herrira ekartzeko egiten du lan. Zailtasun eta oztopo guztien gainetik, hileroko antolatzen dituzte kontzertuak Kultur Etxeko sotoan, musika talde desberdinak ezagutzera emateko, eta lagun artean musikaz gozatzeko. Baina hileroko kontzertuez gain, Sotoko Hotsak musika zikloa antolatzen dute urtero, irailean. Aurtengo ediziorako punta-puntako bi talde gonbidatu dituzte, euren iritzi Sotoko Hotsak jaialdirako oso aproposak: Audience eta Athom Rhumba.

ATHOM RHUMBA, OSTRALEAN



20 urte daramatzate musika egiten, eta hiru mandamenduk agintzen dute taldean:

1. Erraietatik ateratzen zaien musika egitea. Izan daiteke zikina, baina, zaborrontziko loreak bezala, eder baino ederragoa ere bai.
2. Taldea da dena. Norbanakoa, ez.
3. Agertokira ahalik eta ederren ateratzea beti. Bizarra ondo eginda, eta zapatak eta alkandora soinean.

San Bartolome jaien balorazio 'guztiz positiboa' egin du Elgoibarko Udalak

San Bartolome jaietan normaltasuna izan da nagusi. Hala adierazi dute Udaleko arduradunek. Errespetua eta festa girorako gogoia izan dela esan dute, eta eraso sexistarik ez dela salatu nabarmendu dute. Udaleko Berdintasun sailak eraso sexisten aurkako kanpaina berezia sustatu du aurtengo festetan, 'Jaietan ere, ezetza ezetza da!' lelopean, herritarrek zein eragileak sentsibilizatu, inplikatu eta mobilizatzeko, eta bi ekimen nabarmendu dituzte: Txiki Egunean jarri zuten photo-call-a eta *Jaietan ere, ezetza ezetza da!* lemarekin banatu zituzten milaka txapa. Photocallean ehunka lagunek hartu zuten parte, eta argazkiak ikusgai jarri dituzte Udalaren webgunean.

Errespetua, harmonia eta tolerantzia

Ane Beitia alkateak esan du, aurtengo jaiak ere, parte hartzaileak, herrikoiak, doako jarduerekin eta adin tarte zein gustu guztiei erantzuten dizkieten ekimenez betetakoak izan direla. Horrez gain, pozik agertu da iskanbila handirik sortu ez delako. Udaltzain buruak emandako datuen arabera, sakelakoa lapurto izanaga-



tik zazpi salaketa egon dira, baina bestela trafikoarekin, segurtasunarekin eta herritarrei emandako laguntzekin lotutako eskuhartzeak izan dira gehienak. Aurten goak ere, "errespetuan, harmonian eta tolerantzian" oinarritutako jaiak izan direla azpimarratu dute.

Elgoibarko Udalak ehun ekitaldi inguru antolatu ditu aurtun, eta horiek martxan jarri ahal izateko, 169.930 euroko aurrekontua izan du. Ekitaldi bakarra gelditzen bertan behera, Umeen Eguneko erraldoi eta buruhandien kalejira, euriagatik. Gainerako ekitaldiak normaltasun osoz egin dituzte. Kontzertu jendetsuenak Vendetta, Gozategi eta Itziarren Semeak izan

dira. San Bartolomeetako "errebelazio taldea", baina, RockBox izan da arduradunen iritiz.

Urtero legez, alkohol eta bestelako drogei buruzko prebentzio programak jarri ditu martxan Udalak, droga hauen kontsumoa prebenitu eta arriskuez ohartzeko. Alkoholemia postura 263 lagun gerturatu ziren, eta 148k eman zuten positiibo. Drogei buruzko informazio mahaira berriz, 208 lagun joan ziren euren substantziak aztertzerara. Aztertutako droga gehienak marihuana (37%) eta estasia (18%) izan ziren. Besteak kokaina (%16), anfetamina (%13) eta haxixa (%11) izan ziren.

Frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldia bihar, 21:00etan

Frankismoaren biktimak oroitzeko Taupadak eta Elgoibar 1936 taldeek antolatutako ekitaldiak bihar hasiko dira. 21:00etatik aurrera, kandela gorriak piztuko dituzte, eta minutu bateko isilunea gordeko dute Kalegoen plazan. Ondoren, ranxo afaria egingo dute Elgoibarko parroikiko arkupeetan. Afaritarako txartelak 10 euroan jarri dituzte salgai Jai Alai eta Lanbroa tabernetan. Antolatzailuek eskatu dute 1936 garaiko jantziekin joateko afaritarara.

Irailaren 22an, bestalde, *ELE!! Lorca-Lavaxeta* ikuskizuna ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian, eta irailaren 23rako, berriz, ekitaldia antolatu dute hilerrian, Duintasunaren Kolunbarioan.

UEUren udazkeneko ikastaroetan parte hartzeko diru-laguntzak

Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie Udako Euskal Unibertsitateak antolatu dituen udazkeneko ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei. Ikastaroak ikasgelan edo Internet bidez egiteko aukera egongo da. Ikasgelako ikastaroak Eibarren, Gasteizen edo Iruñean izango dira. Elgoibarko Udalaren Euskara Sailaren diru-laguntzari esker, matrikularen kostu osoa ordainduko zaie Elgoibarko ikasle, langabe, pentsiodun eta jubilatuei, eta matrikula erdia, berriz, lanean diharduten herritarrei. Diru-laguntzak eskatzeko epea urriaren 31n bukatzen da. Informazio gehiago Kultur Etxean (Euskara Sailean): 943 744 366 / euskara@elgoibar.eus

Belaustegi jatetxeak parte hartuko du telebistako 'Juego de Cartas' lehiaketan

Arg.: ondojan.com



Euskal Telebistaren bigarren kateak *Juego de Cartas* telebista saioa estreinatu zuen astelehenean. Sukaldaritza espezialitate bera duten Euskal Herriko lau jatetxe aurrez aurre jarriko dituzte saio bakoitzean, eta horietako lehiakideetako bat izango da Elgoibarko Belaustegi jatetxea. Josu Mugerza Belaustegiko sukaldariak jakinarazi duenez, eurenean ere izan dira programako kamerak saioa grabatzen, baina oraindik ez daki noiz emitituko duten. Saio bakoitzean lau jatetxek hartuko dute parte, euren artean hoberena nor den erabakitzeko. Horretarako, bost ezaugarri izango dituzte aztergai: espazioa, azpiegitura eta sukaldearen antolamendua, menua, zerbitzua, eta kalitatearen eta prezioaren arteko harremana. Lehiakideek egingo dituzte epaile lanak, eta besteen lan egiteko eta negozioa aurrera eramateko moduz iritzia eman beharko dute: egokia den edo ez, zer hobetu beharko lukeen, laudoriorik merezi duen... Javi Sierra aurkezlearen laguntza izango dute horretarako. Guztien artean erabakiko dute zein jatetxek eramango duen 2.000 euroko saria. Hainbat herrialdetan arrakasta izan duen *My Restaurant Rocks* saioaren egokitzapena da *Juego de Cartas*.

Gaur zortzi itzuliko da Kiribil Maalara

Udako oporraldiaren ostean, datorren barixakuan itzuliko da Kiribil barraskiloa bere laguntxoekin. Maalako parkean izango da ikuskizuna, 17:30etik aurrera. Kiribilka egitasmoa Elgoibarko Izarrak kudeatzen du, Udalaren babesarekin, guraso eta seme-alaben artean euskararen transmisioa sustatzeko.

'Pedaló' filma Eibarren, Coliseo antzokian

Joseba Etxeberria elgoibartarra protagonistetako bat duen *Pedaló* filma eskainiko dute Eibarren. Euskal Herriko kostaldea, Miarrizetik Bilbora, pedalontzi batean zehar katzen duten hiru lagun bidaia kontatzen du dokumental honek, eta hiru horietako bat da Deban bizi den Joseba Etxeberria elgoibartarra. Juan Palacios eibartarrak ekoiztutako filma da, eta iazko Zinemaldian Euskal Zinemaren Irizar Saria jaso zuen. Eguenean emango dute filma Coliseo antzokian, 20:30etik aurrera. Sarrerak 5 euro balio ditu.

'Zinemaldiak' zikloa antolatu du Ongarrik irailerako

65. edizioa du aurtengoa Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak eta zita horren aitzakiarekin, iazko zinema jaialdietako film arrakastatsuenetariko bi ikusteko aukera eskainiko du Ongarrik: *I am not Madame Bovary* eta *Clash*. Atzo eman zuten lehenengoa eta hilaren 28an eskainiko dute bigarrena. *Clash* film egipziarra Cannesen estreinatu zuten eta Seminci, Valladolideko Nazioarteko Zinemaldian, zuzendari onenaren saria jaso zuen. Film honek poliziarren furgoi batera garamatza eta 2011ko Arabiar Udaberriaren ondorengo kaos egoeran murgilduko gaitu.

I am not Madame Bovary film txinatarrak, berriz, bi sari garrantzitsuenak jaso zituen iaiz Donostiako Zinemaldian: Urrezko eta emakumezko aktorearen zilarrezko maskorra.

Donostian, hilaren 22an hasiko den aurtengo zinemaldiaren edizioak, Ricardo Darín eta Monica Bellucci Donostia sarietako bi, John Malkovich, Glenn Close edo Arnold Schwarzenegger izango ditu protagonistetariko batzuk, besteak beste.



Javi Domingezek irabazi du Tor des Geants, 330 kilometroko mendi lasterketa



Tor des Geants kirol erronka gainditzen duen abentura da. Parte hartzaileek 330 kilometroko ibilbidea (+ 24.000 metro) osatu behar zuten Aostako (Italia) Alpeetan. Domeka goizean, 10:20an, hasi zen proba eta eguaztenean goizaldean, 6:10an, ailegatu zen helmugara irabazlea, Javi Dominguez, lau egunez eta hiru gauzez antxitxika aritu eta gero. Garaipena lortu ez ezik, probako marka ere ondu zuen: 67 ordu, 52 minutu eta 15 segundoko denbora eginda. Bi ordu eta 11 minutuan ondu zuen Iker Karrera Amezketako korrikalariak 2013an ezarritako marka. Franco Colle italiarrarekin izan zuen lehia estuak izan zuen eraginik errekorra ezarzerako orduan, baina baita Dominguezen prestaketa lanak ere, urte guztian prestatzen aritu baita proba honetarako. Logureari eta hankako minari gain hartu eta balentria handia lortu zuen Elgoibarren lan egiten duen mendi lasterkari gasteiztarrek.


Hamasei bikote ari dira parte hartzen bikote mistoen pala txapelketan



Atzo, hilak 14, hasi zen Elgoibarko Bikote Mistoen laugarren Pala Txapelketa. Hamasei bikotek eman dute izena aurten (24 izan ziren iaz), eta lehen fasean bi multzotan banatuta lehiatuko dira. Elkarren aurka jokatu ostean, multzo bakoitzeko lau bikoterik onenak sailkatuko dira final-laurdenetako kanporaketetarako. Partidak astelehen, eguazten eta eguenetan jokatu dituzte Kalegoen plazako frontoian. Urriaren 27an jokatu da finala. Iaz, Nerea Irustak eta Kepa Arrizabalagak lortu zuten garaipena, txapelketa honetan eskuratzen duten bigarrena. Lagunak Pilota Eskolak antolatzen du lehiaketa, Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailaren eta Udal Kirol Patronatuaren laguntzarekin.

Zartako arkulariak bikain Ordizian

Zarta taldeko kideak primeran aritu ziren Ordiziako arku tiraketa txapelketan, joan den domekan. Arku tradizionaletan Jose Luis Garcia Fernandezek lortu zuen garaipena, Javier Varonak hirugarren postua, eta laugarrena, Hugo Sierrak. Longbow modalitatean, berriz, bigarren egin zuen Jose Fisico Zartako ordezkariak.



Sanloren Garagardo festa martxan da

SanloBeer garagardo festa egiten ari da Sanlo Eskubaloi Taldea, Maalan. Atzo, eguna, zabaldu zuten karpak. Hainbat garagardo (Keler, Free Damm, Carling, Bock Damm, Estrella, Radeberger, Oro Bilbao eta Turia) dastatzeko aukeraz gainera, ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak eskainiko dituzte domekara bitartean. Baxiraku eta zapatu gaezan bingo solidarioa egingo dute, eta batzen duten diruaren %60 Gipuzkoako Elikagaien Bankuari emango diotela jakinarazi dute Sanloko arduradunek. Domekan, azkenik, paella erraldoia prestatuko dute, eta bost euroan salduko dituzte bazkarirako txartelak.



Elgoibar 2 Erroberatan bizikleta irteera domekan egingo dute



Domekan, hilaren 17an, egingo dute Elgoibar 2 Erroberatan, Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko helburuarekin antolatzen duen irteera. Aurtengoa bi erroberetan ekimenaren 13. edizioa izango da. 10:00ak inguruan Kalegoen plazan elkartu eta 10:30ean abiatuko dira Sallobente-Ermuaranerantz, herriko kaleetatik itzuli bat eman ostean. Sallobenten atsedean labor bat hartu, talde argazkia atera eta Kalegoenera itzuliko dira berriz. Plazan txorizo egosia, txokolatea eta freskagarriak banatuko dituzte antolatzaileek eta indarrak berreskuratu ostean, ginkana bat prestatu dute bizikletekin egiteko. 12:00ak inguruan izango da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, haur nahiz heldu, herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera. Hori bai, kaskoa derrigorezkoa dela ohartarazi dute.

Atletismoko entrenamenduak martxan daude



Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi duenez, hasi dituzte denboraldi berriko entrenamendu saioak, eta hori dela-eta, Elgoibarko zein inguruko herrietako neska-mutilak animatu nahi dituzte atletismoa eta Mintxeta taldea ezagutzera, klubaren ateak zabalik izango baitituzte irailean. Atletismoan hasi nahi dutenek Mintxetan agertu beharko dute entrenamendu egunetan: astelehen, eguazten eta barixakuetan, 18:30etik 20:00etara bitartean.

Emaitzak

ESKUBALOIA

Usurbil 31 – Sanlo EKT 272 (Euskadiko Kopa)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16

17:00 Elgoibar – Anaitasuna (1. erreg.)

Domeka, 17

12:00 Elgoibar - Lazkao (Oho. Jub.)

PILOTA (Elgoibar Ikastolan)

Zapatua, 16

11:00 Lagunak – Zestoa (Gomazko Palet. 2.

Maila, nagusiak)

Futbol Eskolan apuntatzeko azken eguna: irailak 18

C.D. Elgoibarrek jakinarazi duenez, irailaren 18a izango da Futbol Eskolan izena emateko azken eguna. Momentuz 115 neska-mutilek eman dute izena. Realarekin antolatu zuten Futbol Campusak izan zuen arrakasta ikusita, -50 neskak parte hartu zuten-, uste zuten C.D. Elgoibarrereko arduradunek neska gehiagok emango zuela izena Futbol Eskolan baina oraingoz 13 neskak eman dute. Futbol Eskolako entrenamenduak eguaztenetan egingo dituzte Mintxetan, 17:00etatik 18:30era. Eskolaren funtzionamenduari buruzko batzarrak egingo dute irailaren 19an, martitzena, Elgoibarko Kultur Etxean, 19:00etan.



LANA.....**Eskaerak**

Edozein lan mota egiteko prest nago. Esperientzi handia nagusiak zaintzen.
☎ 625 804 767

Garbiketarak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 603 237 932 / 943 259 115

Nagusiak zaintzeko eta pasiatzera ateratzeko prest nago.
☎ 699 535 728

Adinekoak zainduko nituzte gauetan edo asteburuetan.
☎ 632 733 573 (Olga)

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 631 777 327 (Bertha)

Asteazken eta ostiraletan lan egingo nuke, 9:00etatik 15:00etara.
☎ 686 578 228

Ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
☎ 685 724 861 / 943 748 899

Gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edota etxeko garbiketa lanak egiteko. Goizetik 11:30era.
☎ 617 248 087

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago.
☎ 628 529 252

Zerbitzari, sukalde laguntzaile, garbiketaile edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 675 965 130

Edozein lan egiteko prest nago. Malgutasun osoa. ☎ 602 152 685

Ingeles eskolak ematen ditut etxez-etxe. Maila guztiak. Tituludun irakaslea naiz.
☎ 680 319 002

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest. Asteleheneetik ostiralera, 10:00-17:00.
☎ 632 564 679 / 640 742 618

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 638 338 816

Garbiketarak egiteko prest nago. Portalak, etxeak, elkarateak... Euskalduna naiz.
☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, Elgoibar, Sorraluze edo Eibar aldean. Esperientzia daukat. ☎ 632 061 103

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 642 650 815 (Fran)

Nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskaraz dakit.
☎ 662 401 585

Eskaintzak

Zerbitzaria behar da Mahats tabernan lan egiteko.
☎ 646 936 092

Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.
☎ 617 187 539

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska bat behar da lehenbailehen. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidalai curriculumak: cvdenda@hotmail.com

Jangelako zerbitzaria behar da Elgoibarko jatetxe batean lan egiteko.
☎ 625 467 634

ETXEBIZITZAK.....

Elgoibarko erdigunean pisua alokatzen dut: 3 logela, sukalde-jangela eta kumuna. 3. pisua igogailurik gabe. 500€ hileko eta 3 hilabeteko fiantza.
☎ 688 650 060 (Laura)

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 631 827 339

Bi pertsonentzako etxea edo ganbara hartuko nuke alokairuan. Presazkoa da.
☎ 638 338 816

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren, erdigunean. ☎ 636 120 425

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 626 329 979

Logela bat alokatu edo pisua konpartituko nuke Elgoibarren.
☎ 678 277 099 (Leire)

BESTELAKOAK.....

Uparitzaga eta King-Kong artean eraztuna galdu dut. Balore sentimental handikoa da.
☎ 606 553 635

Astelehenean mendiko makila bat aurkitu genuen San Roken, zentrala eta Gurutze baserriaren artean. Udaltzaingora eramam dugu.

OSPAKIZUNAK.....

1972koen bazkaria urriaren 7an. 13:00etan, argazkia Bolatokian. Segidan Luntxa Usuan, eta 14:30ean bazkaria+DJ Sigma Jatetxean. 60 euro sartu behar dira irailaren 29rako ondorengo kontu korrontean: ES40-3035-0007-26-0071134189 (Laboral Kutxa).

1942koen kinto bazkaria irailaren 16an. 11:45ean batuko dira Maalako eliza atarian eta 12:00etan meza izango da. Segidan taldeko argazkia egingo da. 12:30ean luntxa Ibai-ondo erretegian, 14:30ean, bazkaria Sigma jatetxean. 60 euro sartu irailaren 12rako kontu korronte honetan: ES77-3035-0007-29-0070068607 (Laboral Kutxa).

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Enpresa Administrazioaren Kontseilua



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Bi etxeren jabea naiz eta jakin nahiko nuke ea biek in bat egin edo zati ditzakedan jabeakideen batzarraren onespenerik gabe.

Etxeak edo lokalak batu edo zatitzeaz ari garenean, ez gara ari bakarrik moldaketa horri buruz. Legez ere jaso behar da aldaketa hori egin dela, obra horren emaitza -sortu diren etxebizitza edo lokal berriak- Jabetza Erregistroan jasota.

Etxebizitza edo lokal bat zatitzeko ez da beharrezkoa komunitateak baimentzea, beti ere hirugarren jabetza bati edota zerbitzu edo elementu komunei eragiten ez badie- Askok jota, hirigintza baimenen bat eskatu beharko da, edo obra txiki baterako baimena bestela.

Eratze titulok edo estatuetan ez bada horren inguruan ezer zehazten, bi etxeak batu edo zatitu aurretik batzarraren baimena beharko da. Aldiz, Eratze tituluan edota estatuetan era horretako moldaketak egiteko aukera jasota badago, ez litzateke aurrez baimenik eskatu beharrik egongo. Hori bai, batzarrak horren gaineko kontrola egin beharko luke, besteak beste kuota berriak zehazteko eta moldaketa horiek beste bizilagun batzuen jabetzei eta zerbitzu komunei eragin ez diela bermatzeko.

AHOLKUA: Obra horiek normalean hirigintza baimenei lotuta daude, eta baimenik ezean, arriskua dago eskritura publikoan eta erregistroan izena ematea eragozteko.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Iraixe**, asteartean 11 urte egin zenituelako. Gurasoen eta ahizpa Saioren partez. Muxu bat.



A ze mutil puska egin zaren, **Luken!** Atzo 6 urte! Zorionak eta muxu bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Danel**, asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Muxu bat. Etxekoek, eta bereziki, Izaro, Oihan eta Jarek.



Zorionak, **Garazi**, bihar 6 urte beteko dituzuelako. Jarraitu horrelako formal. Muxu potolo bat, etxekoek partez.



Zorionak, **bikote!** Zelako ondo pasatu genuen zapatuan, zuen ezkontza egunean. Ondo pasa eztei bidaian.




Zorionak, **txa-peldun!** 11 urte! Zorionak, Markel, familia-koen eta bereziki, Endika eta Dane-len partez.



Zorionak, **Nora**, ostegunean 5 urte handi egin zenituelako. Patxo potolo bat etxekoek partez.



Zorionak, **Sare!** Ondo-ondo pasa zure eguna laguntxo eta familiakoe-kin. Asko maite zaitugu.




Zorionak **Aratz!** Hiru urtetxo astelehenean. Muxu handi bat etxeko guztien partez, batez ere Jare, Ibai eta Lierren partez.



Zorionak, **David** eta **Sheila!** Primeran pasatuko dugu. Kuadrillakoak.



Zorionak, **Arkaitz** eta **Enara!** Egun polita larunbatekoa! Muxu handi bat etxekoek partez.



Zorionak, **Beñat** eta **Maialen**, irailaren 13an urteak egin zenituztelako. As-teburuan ospatuko dugu! Muxu potolo bana etxeko guztien partez.

2018ko Gida komertziala

Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala prestatzen dihardugu. Zure enpresaren datuak gidan DOAN agertzeko aukera daukazu!

Datu-basea osatzeko zure laguntza behar dugulako, eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea:

gida@elgoibarkoizarra.eus
gidabarren@gmail.com

943 744 112

Interneten ere **bai!**

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

Denboraldi amaierako deskontuak, markadun eguzkitako betaurrekoetan.

AZKEN EGUNAK!

16 ZAPATUA

21:00 Frankismoaren biktimak oroitzeko isilunea. Kalegoen plazan.

Segidan, rantxo afaria.

Taupada eta Elgoibar 1936 taldeek antolatuta.

17 DOMEKA

10:30 Elgoibar 2 Erroberatan. Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak antolatuta. Kalegoen plazatik Sallobentera.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *Queen's Park melody* (Jacob de Haan).
2. *Appalachian oberture* (James Barner).
3. *Clarinera Mayor* (J.V. Mas Quiles).
4. *Dakota* (Jacob de Haan).
5. *La boda de Luis Alonso* (G. Gimenez).

20 EGUAZTENA

18:00 Edoskitze taldearen bilkura. Maitasunez Hezi taldeak hileroko batzarra egingo du Kultur Etxeko sotoan.

19:00 'Fikzioaren uhinetan'. Literaturari eta irratitari buruzko elkar-riketa ezohikoa, Harkaitz Cano eta Arantxa Iturberekin. Hamai-ka litera taldeak antolatuta, Musika Eskolako auditorioan

21 EGUENA

21:30 'Sotoko Hotsak'. Audience plays Jai Alai Blues. Sinuösek antolatuta, Herriko Antzokian.

22 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Maalako parkean.

23:00 'Sotoko Hotsak'. Athom Rhumba taldearen kontzertua. Si- nuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

09:00 - 22:00

15 Barixakua ETXEBERRIA
16 Zapatua FERNANDEZ
Goizez, BARRENETXEA
17 Domeka FERNANDEZ
18 Astelehena YUDEGO

19 Martitzena ORUESAGASTI
20 Eguaztina BARRENETXEA
21 Eguena IBAÑEZ
22 Barixakua GARITAONANDIA

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera
GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18
943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142
* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638
* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

SANLOBEER FEST

15 BARIXAKUA

18:00 Karparen irekiera.

19:00-21:00 Pintxo potea (ganbak).

22:00 Musika zuzenean.

23:30 Bingo solidarioa.

00:00 Dantzaldia.

(Muskuiluak tomatearekin).

12:00 Beteranoen partida,

Olaizaga kiroldegian.

14:30 Beteranoen bazkaria.

22:00 Musika zuzenean.

23:30 Bingo solidarioa.

00:00 Dantzaldia.

16 ZAPATUA

12:00 Karparen irekiera.

12:00-14:30 Pintxo potea

17 DOMEKA

12:00 Karparen irekiera.

14:30 Paella jan erraldoia.

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2017an jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik irailaren 18tik 29ra, azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat.



elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus

943 744441




IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera irailaren 18an, 18:00etan





Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



Begoña Galdos Urrutia

"Aitzgorri"

2017ko irailaren 13an hil zen, 82 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



III. URTEURRENA

Juanito Loiola Bergaretxe

2014ko irailaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

Beti egongo zara gure bihotzean. Asko maite zaitugu
Etxeko sendiak




I. URTEURRENA

Ignacio Elorza Ansola

"Etxabe"

2016ko irailaren 12an hil zen, 77 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 16, 19:00etan Elgoibarko
Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



Isaac Ramos Lopez

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

2017ko irailaren 12an hil zen, 66 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



porretako argazki bikaina, guretzat opari. Mila esker, Iñigo. Porto omen. Bai ederra! Ilunabarreko argi goxoa; Duero ibai zabaleko ur barea, haize leun batek doi-doi harrotua; ibai er-tzetako ontziak; hiriko etxe, jauregi eta eliza zaharrak kaleetako argi mo-telaren pean, ... dena zubi dotorearen talaiatik ikusgai eder bihurtua.

Niri, ordea, aurtengo udan gurean turistak direla-ta sortutako kalapita gogoan, zalantza piztu zait: turista asko ibili ote da Porton ere? gainezka egin ote dute alde zaharreko kaleek? gora egin ote dute horko etxe eta lokalen prezioek? ga-tazkarik sortu ote da turistekin? bertakoen ohiturak eta bizi-erritmoa errespetatzen al dituzte turistek?

Baina ez gaitezen besteak kritikatzan hasi. Zer egiten dugu, bada, guk geuk kanpora joaten garenean? Irlandan izan naiz aurtengo abuztuan, eta, bai, ni ere izan naiz turista, eta batzuetan patxada galduta ibili naiz ahalik eta toki gehien ikusi nahian. Itsaslabar ikusgarriak bisitatu ditut milaka turistarekin batera; errepide estuetan ibili naiz autoan, agian trafikoa behar baino gehiago handituz; hainbat pubetan sartu eta, batzuetan, sarkin sentimendua ezin izan dut saihestu. Turis-moak edo bidaiatzeak baditu alderdi onak eta txarrak. Orain sortu den eztabaidak balioko ahal digu geuri ere gutxienez turista edo bidaiari adeitsuagoak izaten!

Eta Iñigok bezala, nik ere opari bat dakarkizuet. IX. mendeko irlandar monje anonimo batek idatzitako poema labur bat da eta *Erlea* aldizkariaren 2. zenbakian, 53. orrialdean, aurkitu dut:

XOXOA


*Txori txikia
Txio-txioka:
Moko horia
Nota borborra.*

*Xoxoa
Lagan-en uraren gainean,
Otalore muluen
Eztanda.*

“Orain sortu den eztabaidak balioko ahal digu geuri ere gutxienez turista edo bidaiari adeitsuagoak izaten!”



izen-ematea
irailaren 22ra arte
666 557 538



**3 - 5 URTEKO UMEENTZAKO
MARGO TAILERRA**
Asteartetan eta ostegunetan
17:00 - 17:50
12 € / hilean



OLEO TAILERRA HELDUENTZAT
Asteleheneretan eta ostegunetan
18:30 - 20:00
20€ / hilean
Irakaslea: Aitor Etxeberria



**6 URTETIK GORAKO
UMEENTZAKO MARGO TAILERRA**
Asteartetan 18:00 - 18:50
Ostegunetan 17:00 - 17:50
edo 18:00 - 18:50
12 € / hilean



**ZERAMIKA IKASTAROA
HELDUENTZAT**
Asteazkenetan (ordutegia adosteko)
30 ordu, urrian hasita
70€ / ikastaroa (gehi buztina)



**ZERAMIKA IKASTAROA
UMEENTZAT**
Asteazkenetan 17:00 - 19:00
20 ordu, urritik abendura
22€ / hilean (materiala barne)

laguntzaileak:



Egur arte tailerra · Merkatu plazako 1. solairuan, Elgoibar · 666 557 538 · egurarte@gmail.com · f Egur arte tailerra

17/18

CURSO IKASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK
Plaza de matriculación ABIERTO



UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara ikasgai - class of euskara
www.udaleuskaltegiak.eus



17-18 IKASTURTEA

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 27RA ARTE
Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA**
Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat.
(Baldintzak betez gero)
Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30
DEBABE UDAL EUSKALTEGIA
Kalebarren plaza, 2 - Tel.: 943 742 731

ALEMANA INGELESA

ALEMANEKO IKASTAROAK UME ETA GAZTEENTZAT

Alemana ikasi nahi duzu?

- KLASE DINAMIKO ETA ATSEGINAK
- TALDE TXIKIAK
- BANAN-BANAKO JARRAIPENA
- MAILA GUZTIAK: HAUR, GAZTE ZEIN HELDUENTZAT

Beste zerbitzu batzuk

Ingeleseko ikastaroak zure beharretara egokituta.

- Zinpeko itzulpenak: gaztelania/ingelesa, eskola ziurtagiriak, unibertsitate tituluak eta bestelako agiriak.
- Aldibereko itzulpenak gaztelania/alemana enpresetan.



Ainara Barreña

TRANSLATION & LANGUAGE TEACHING

Aita Agirre plaza 7 eskuma
(Lekueder) ELGOIBAR
T. 943 577469 M. 619 690 301
ainara@traduccionesainara.com
www.traduccionesainara.com

PROFESIONALAK
GARA